


Nazioarteko lankidetza eta elkartasuna
indarkeriarik gabeko erresistentzia
esperientziekin eta hauen harremana
bakegintzarekin

Itziar Mujika Chao



Nazioarteko lankidetza eta elkartasuna
indarkeriarik gabeko erresistentzia
esperientziekin eta hauen harremana
bakegintzarekin

Itziar Mujika Chao

* Itziar Mujika Chao: Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakaslea eta Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzailea.

Gida hau GLEAK finantzatutako proiektu honen markoan egin da: “Construcción de la Paz Crítica: marco conceptual y metodológico para una cooperación vasca sensible al conflicto”
(Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzaren baterako marko kontzeptual eta metodologikoa), PRO2016K3010.



Nazioarteko lankidetzaren eta elkartasuna indarkeriarik gabeko erresistentzia esperientziekin eta hauen harremana bakegintzarekin

Egilea: Itziar Mujika Chao

www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU

Zubiria Etxea eraikina

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81

48015 **Bilbo**

Tel.: 94 601 70 91

Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Enparantza, 2

20018 **Donostia**

Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU

Campuseko Liburutegia

Nieves Cano, 33

01006 **Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 01 42 87

Faxa: 945 01 42 87

2019ko urtarrila

Diseinu eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios

Itzulpena: Iñigo Gallastegi Zorrilla

Inprimaketa: Gráficas Ingugom

L.G.: BI-717-2019

ISBN: 978-84-16257-37-9



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Laburpena

Azken bi hamarkadetan indarkeriarik gabeko erresistentzia mugimenduen inguruko interesak gora egin du nabarmen. Hala ere, mugimendu horiei zuzendutako nazioarteko lankidetzak eta elkartasun ekimenen azterketa lehenengo fase batean dago. Gida honek, beraz, gobernu eta gobernu arteko organismoen, atzerriko gizarte mugimenduen eta/edo mugimendu transnazionalen nazioarteko lankidetzak horrek izan dezakeen forma aniztasunaren inguruan egindako ekarpen nagusiak bildu nahi ditu. Era berean, gidak zenbait gomendio orokor biltzen ditu, lankidetzak horren garapen eta aplikazio eraginkorrago bat sustatzeko helburuz.

Hitz gakoak

Indarkeria-eza, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila, nazioarteko lankidetzak, nazioarteko elkartasuna.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila gatazkak modu baketsuan eraldatzeko estrategia gisa	7
3. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimendu eta ekimenei zuzendutako nazioarteko lankidetzak eta elkartasuna	13
3.1. Nazioarteko elkartasunaren ezaugarri nagusiak eta tipologia	13
3.1.1. Kanpoko laguntza edo nazioarteko gobernu ekintza	16
3.1.2. Hirugarren alderdien esku-hartzea eta laguntza	16
3.2. Nazioarteko eta mugaz gaindiko ekintzaren inguruko eztabaidak eta alderdi kritikoak	20
4. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila laguntzen den kasuetarako gomendio operatiboak	22
4.1. Harreman horizontalak garatzea	23
4.2. Indarkeriarik gabeko mugimenduak sendotzeko ekimenak laguntzea	24
4.3. Babes mekanismoak	24
4.4. Epe luzeko laguntza	24
4.5. Monitorizazio, kontrol eta balorazio tresnak sortzea	25
5. Ondorioak	26
Bibliografia	27

1. Sarrera

Udaberri Arabiarraren garapena 2011tik aurrera, gero Afrikako iparraldean emandako indarkeriarik gabeko matxinadak, edota bakegintza testuinguruetan indarkeriarik gabeko metodoen erabilera... Horiek guztiek, erresistentzia zibileko prozesuak eta indarkeria-eza gatazkak modu baketsuan eraldatzeko tresna bezala praktikan jartzea eta hau ikertzea sustatu dute, maila teorikoan zein praktikokoan. Era berean, pazifismoa tresna sozio-politiko gisa lantzea ere sustatu dute. Tradizionalki indarkeria-eza eraginik edota baliorik gabeko ezaugarri ahultzat jo izan da (Dudouet, 2008: 2). Aitzitik, helburuei eta epe luzeko efektuei dagokienez, zenbait ikerketa berrik indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren metodoek duten eraginkortasuna nabarmendu dute, indarkeria edo metodo armatuen aurrean. Zentzu horretan, indarkeria-ezeko balioak ez datoz, berez, indarkeriazko ekimenen edo talde armatuaren jardueraren ostean. Aitzitik, indarkeria-ezeko balio horiek erresistentzia zibileko prozesuen ostean sustatzen dira gehiago; prozesu horiek bere helburuak lortzen ez badituzte edo horiek alferrikakotzat jotzen badira ere (Chenoweth & Stephan, 2011: 202).

Hain zuzen ere, azken urteotan Erresistentzia Ikasketen markoan egindako ekarpen nagusiak indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren eta gatazken eraldaketaren arteko gurutzaketan eman dira. Ikasketa eremu horrek, hainbat tradizio teoriko zeharkatzen ditu, hala nola, gizarte mugimenduei buruzko ikasketak, iraultzei buruzko ikasketak, ikasketa postkolonialak, gatazka armatuei buruzko ikasketak, ikasketa feministak eta generokoak, soziologia, politika zientziak, antropologia edo psikologia; baita tradizio marxistek edo postestrukturalistek aztertutako erresistentzia dinamika sotilago edo eguneroko erresistentziei buruzko ikasketak ere, besteak beste (Baaz, Lilja & Vinthagen, 2018: 5). Izan ere, tradizio Postestrukturalistaren bitartez, Erresistentzia Ikasketek indarkeriarik gabeko erresistentziaren (erresistentzia herritarraren) ikerketan sakondu dute. Hala, erresistentzia hori indarkeriarik gabeko borroka dinamika gisa ikasteaz gain, tresna narratibo eta diskurtsibo edo bakegintzarako tresna gisa ikasten dute. Hala, garapen bidean dagoen ikasketa eremua da hori, azken hamarkadan hori zabaltzen eta sakontzen ari bada ere.

Halaber, Erresistentzia Ikasketen eremua zabaltzeko prozesu horretan indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren hainbat definizio identifikatu dira¹. Izan ere, erresistentziaren kontzeptua modu desberdinean ulertzen da ikasketa eremu desberdinetan. Gida honetan, honako definizio hau erabiliko dugu: “metodo kolektibo ez biolento, liskargile eta instituzioz kanpokoen erabilpena da, hala nola, grebak, manifestazioak, boikotak, ez kooperatzea,

1 Aldi berean, indarkeria ezaren (gaztelaniazko “no violencia”) eta indarkeria-ezaren (gaztelaniazko “noviolencia”) arteko bereizketa azpimarratu nahi dugu. Izan ere, gida honetan indarkeria-eza forma erabiltzen dugu Mario Lópezek adierazten duen honetan oinarrituz (2009: 5-8): “indarkeria eza” (no violencia) “indarkeria zuzenik gabe” bezala ulertzen bada, “indarkeria-eza” (noviolencia) hitza, indarkeriarik gabeko protestarako tresna multzo handi bati dagokio, baina baita (gizakiaren) sufrimendua ahal den neurrian minimizatu nahi duen filosofia etiko-politikoari ere.

erresistentzia konstruktiboko ekintzak eta metodoak; zapalkuntzari, kanpoko okupazioari edo edozein gizarte harreman bidegabereri aurre egin nahi dietenak”. Metodo horiek, bada, “gizartea aldatzeko helburuz indarkeriarik gabeko metodo legal, erdi-legal edo debekatuak kolektiboki erabiltzen dituzten (...) oinarriko aktibista antolatuek” inplementatzen dituzte (Dudouet, 2017: 11). Hala, definizio orokor horretan oinarrituz, Erresistentzia Ikasketen Kritikaren azken ekarpenetan indarkeriarik gabeko erresistentzia modu zabalago batean ulertzen da. Honela, ekarpen horien arabera, erresistentzia egunerokoan txertatzen diren indarkeriarik gabeko dinamika anitz, produktibo eta arinen multzoa da. Dinamika horiek, bada, gizarteak modu konstruktiboan eralda ditzakete (Baaz, Lilja, Schulz & Vinthagen, 2016: 138).

Beraz, gida metodologiko hau Erresistentzia Ikasketen eremuan sortzen ari den corpus teorikoaren ikerketa horretatik abiatzen da. Gidak, hortaz, indarkeria-ezari eta erresistentzia baketsu edo indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilari zuzendutako nazioarteko elkartasun esperientzietan jarri nahi du arreta; gobernu erakundeetako, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetako (GGKE), interesatutako beste erakunde batzuetako eta gizarte mugimendu edo mugimendu transnazioaletako lankidetzaren eragileei zuzendutako zenbait gomendio identifikatuz. Horretarako, bada, sarrera labur honen ondoren, lehenik, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren ikerketaren eta praktikaren jatorria, garapena eta gaur egungo egoera aurkeztuko dira, baita horrek bakegintzarekin duen harreman gero eta sakonagoa ere. Gero, mugimendu horiekiko nazioarteko lankidetzaren eta esku-hartzearen joera desberdinen dinamiketan eta ezaugarrietan sakonduko dugu eta hauen inguruko arrisku eta eztabaida nagusiak identifikatuko ditugu. Azkenik, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduekin harremanak garatzeko gomendio batzuk eskainiko ditugu.

2. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila gatazkak modu baketsuan eraldatzeko estrategia gisa

Azken hamarkadetan eta, batez ere, Bigarren Mundu Gerraren ostean, nazioarteko politikan gatazka armatuek eta borrokatzeko bide biolentoei erakarri dute arreta gehiena. Hala ere, 1960ko hamarkadaz geroztik, Bake Ikasketek eta, batez ere, Erresistentzia Ikasketek indarkeria-ezak eta indarkeriarik gabeko metodoek gatazken eraldaketan eta gizarte intzidentzian duten eragina bistaritzen ari dira. Zentzu horretan, bada, gero eta ikerketa gehiago indarkeria-ezak eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimenduek XX. mendean izan duten papera bistaritzen ari dira, eragin sozial eta politikoko indarkeriarik gabeko metodoak aztertuz.

Hainbat ikerketa kuantitatibok honako ekimen, mugimendu eta prozesu hauetan jarri dute fokua: independentziaren eta indar kolonialen amaieraren aldeko mugimendua Indian, Mohandas K. Gandhiren eskutik; Amerikako Estatu Batuetako gizarte eskubideen defentsa; edo XX. mendean azken hamarkadan Ekialdeko Europako erregimen komunistekin bukatu zuten mugimendu desberdinak. Hala, bada, ikerketa horiek indarkeriaren ordez indarkeriarik gabeko ekintzak eta erresistentzia zibila bistaritzea izan dute helburu. Ildo horretan egindako ikerketa ospetsuenetako bat, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila erresistentzia armatua baino eraginkorragoa dela frogatzen saiatu da, metodo kuantitatiboan bitartez. Izan ere, Erica Chenoweth eta Maria J. Stephanek (2011) indarkeria-eza indarkeria baino eraginkorragoa dela frogatzen dute. Horretarako aldagarri desberdinak aztertzen dituzte, hala nola, mugimendu horietan dagoen parte-hartze soziala, bere efektuak edo ondorioak, eta horien osteko erregimen demokratikoen garapena. Maila kualitatiboan, aldiz, ikerketak indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimendu edo prozesuen edo indarkeriarik gabeko ekintza zibilaren nondik norakoak aztertu dituzte. Era berean, ikerketa berriek, bake kultura garatzeari dagokionez, indarkeria-ezak eta pazifismoak nazioartean duten garrantzia aztertu dute.

Bestalde, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren jatorria eta bilakaera indarkeria-ezaren historiarekin eta garapenarekin lotu dira, nahiz eta historia hori ez den XX. mendera arte berreskuratu. Izan ere, Bigarren Mundu Gerrarako, zenbait herritan, inbasioaren aurkako indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko lehenbiziko ekimenak agertu ziren. Hala, Mohandas K. Gandhiren ideiek izan zuten eragin handia dela-eta, Gerra Hotzean kasu horiek ugari ziren. Gandhik indarkeriarik gabeko gatazka antolatu zuen, bi kontzeptu nagusi hauetan oinarrituz: *ahimsa* eta *satyagraha*. Lehenengoak indarkeria-eza kontzeptu etiko gisa ulertzen du, ez hiltzeari edo kalterik ez egiteari lotuta. Bigarrena, aldiz, egiaren alde eta aurkariari zuzendutako jarraitutasunarekin edo indarrarekin lotzen

da, armarik gabeko borrokaren neologismo bezala. Gandhik, beraz, erresistentzia zibil aktiboa eta pasiboa bereizi zituen eta indarkeria armatuaren erabilera arbuiatu zuen².

1960ko hamarkadatik, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) eskubide sozialen aldeko mugimenduaren eraginpean, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko dinamikak hedatu ziren³. Horrek, bada, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko tekniken edo metodoen identifikazioa handitu zuen. Testuinguru horretan, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilari buruzko ikasketen lehen boladan izan ziren egile nagusien lehen ekarpenak eman ziren, Gene Sharp, Jean Marie Muller, John Galtung edo Richard B. Greggenak, adibidez.

Hala, Gene Sharp estatubatuarrek, bere ekarpen ugarien bitartez eta Gandhiren indarkeria- ezaren teoria aztertuz, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila gatazkak gainditzeko tresna bezala identifikatu zuen. Bere lehen lanetariko batean, Sharpek, Gandhiren ideiak garatuz, “boterearen onarpenaren teoria” (*consent theory of power*) identifikatu zuen. Teoria horren oinarria da herritarren onarpena dela boterearen erabilera ahalbidetzen duena, botere hori zeinahi izanda ere. Hortaz, onarpenik gabe boterea ahulduko litzateke (Sharp, 1973). Lan horretan, Sharpek indarkeriarik gabeko 198 metodo identifikatu zituen, baita indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko prozesu arrakastatsuen ezaugarri eta dinamika nagusiak ere. Gandhik ez bezala, Sharpek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila tresna estrategikotzat hartzen zuen eta hori hasierako *ahimsa* kontzeptutik, hau da, indarkeria-eza printzipio etikotzat hartzetik aldentzen zuen. Ikuspegi etiko batetik norberak zein kolektiboak indarkeriaren inguruan duen jarrerari dagokionez, indarkeria- ez pragmatikoa eta printzipiozko indarkeria-eza (*principled nonviolence*) bereizten zituen. Zentzu horretan, printzipiozko indarkeria-eza indarkeriaren inguruan ditugun jarrera eta ikuspegi pertsonalak aldatzean datza. Indarkeria-eza indarkeriaren ondorio sozial eta indibidualei buruzko printzipio etikoetan oinarritzen da, baita inori kalte fisikoa ez egiteko ideian ere. Beste alde batetik, indarkeria-ez⁴ pragmatikoak helburu estrategikoak ditu; hau da, aurkariaren aurrean indarkeria-eza erabiltzea hautu estrategikoa da. Beraz, bide hori indarkeria-eza indarkeriaren erabilerarekin alderatu ondoren hartuko da (Ortega & Pozo, 2005: 47). Laburbilduz, indarkeria-ez pragmatikoa aukera alternatibo bezala erabiliko da hori helburuak lortzeko eraginkorragoa izango delako ziurtasuna dagoenean (hasieran behintzat). Printzipiozko indarkeria-eza edo indarkeria-ez etikoa, ordea, bizitzeko, jakiteko eta egiteko modu alternatibo batera hurbiltzen saiatzen da (López, 2012: 170). Hala, indarkeria- ezaren edo indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren ikerketan joera biak aipatzen badira ere, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimenduen ikuspegitik, joera pragmatikoa modu zabalago eta sakonago batean ikertu izan da. Hasierako bereizketa

2 Gandhik indarkeria- ezaren eta erresistentzia zibilaren inguruan zuen ikuspegiari buruzko informazio gehiago hemen: López, 2009, 2012b; King, 1999; Dalton, 2012.

3 Iranen, Shah-aren aurkako indarkeriarik gabeko iraultza, 1978 eta 1979an, armatu gabeko lehenengo iraultzetako bat izan zen. Era berean, Ekialdeko Europako erregimen komunisten aurkako mugimenduek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko dinamikak erabili zituzten. 1960az geroztiko erresistentzia zibileko mugimendu nabarmenen identifikazio baterako ikus, adibidez, Mujika Chao (2017: 15).

4 Egilearen eta itzultzailearen oharra: Askotan, “indarkeria-ezazko” eta “indarkeria-eza aktiboa” bezalako moldeak erabiltzen diren arren, “indarkeria-ezeko” eta “indarkeria-ez aktiboa” bezalako moldeak zuzenagoak direla uste dugu eta, hortaz, horren inguruan eztabaidatu eta gero, azken horiek erabiltzea erabaki dugu.

horretan oinarrituz, ekarpen multzo zabala garatu da indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimenduen definizio desberdinen, tipologiaren, ezaugarrien, metodoen edo dinamiken inguruan, batez ere, joera pragmatikoari dagokionez.

Indarkeria-ezaren hautua gizartea eraldatzeko bitarteko bezala erabiltzen da, herritarren kontrako bidegabekeriaren aurka. Mario Lopezek, bada, hiru mota hauen arabera sailkatzen ditu bidegabekeria horiek, bakoitzaren helburuen arabera (2012a: 33-34): menperatze kolonialaren aurkako borrokak, erregimen totalitarioen aurkako borrokak, eta diktaduren kontrako eta giza eskubideen eta askatasunaren aldeko borrokak. Sailkapen horretan gizarte berdintasunaren eta ekitatearen aldeko indarkeriarik gabeko mugimenduak ere sar ditzakegu (Mujika Chao, 2017: 24-26). Katēgoria horiek, nolabait, indarkeria zuzen eta ireki maila altuak dituzten testuinguruei eta/edo indarkeria estrukturalak dituzten testuinguruei dagozkie. Era berean, erresistentzia zibileko mugimenduek kausa desberdinak biltzen dituzte, eraldatzaileak zein erreformistak.

Halaber, joera pragmatikoaren baitan, Sharpek indarkeria-ezaren metodologia oso bat garatu zuen, erresistentzia zibileko 198 metodo identifikatuz. Hala, corpus metodiko hori honako hauen arabera sailkatu zuen: protesta edo limurtzeko metodoak, kooperazio-ezeko metodoak, eta indarkeriarik gabeko esku-hartze metodoak (Sharp, 1973). Batetik, protesta edo limurtzeko metodoak aurkaria modu sinbolikoan limurtu edo horren jarrera aldatu nahi duten horiek dira. Horretarako ekintza sinbolikoak erabiltzen dituzte, sektore, ekintza edo gobernu jakinen aurrean beren oposizioa edo onarpena erakutsiz. Bestetik, kooperazio-ezeko metodoak berriaz ekintza bat egiteari edo prozesu edo kolektibo batean parte hartzeari uko egiten dioten metodoak dira. Hala, kooperazio-eza hiru bidetik burutu daiteke: kooperazio-ez soziala (normaltzat edo normatibotzat hartzen diren gizarte harremanak izateari uko eginez), kooperazio-ez ekonomikoa (aurkariarekin inolako harreman ekonomikorik izateari uko eginez), eta kooperazio-ez politikoa (hau da, aurkariarekin inolako harreman politiko positiborik izateari uko egitea). Azkenik, indarkeriarik gabeko esku-hartzeko metodoak, motibazio estrategiko batekin eta esku-hartzearen eta disrupzioaren bitartez, harreman sozial eta politikoak aldatu nahi dituzten horiek dira⁵.

Aurreko kategorietan sartutako edozein metodok honako bi helburu hauek izan ditzake: ekintza jakin bat egitea edo ez egitea. Beraz, komisio ekintza bat, indarkeriarik gabeko ekintzaren bitartez, norbanako gisa egitea espero ez den ekintza bat egitea litzateke. Komisio ekintza bat, ordea, guztiz kontrakoa litzateke: norbanako gisa egitea espero den ekintza bat ez egitea, alegia (Sharp, 2005: 40). Zentzu horretan, bada, metodo anitz

Indarkeria-ez pragmatikoak helburu estrategikoak ditu; hau da, aurkariaren aurrean indarkeria-eza erabiltzea hautu estrategikoa da. Printzipiozko indarkeria-eza edo indarkeria-ez etikoa, ordea, bizitzeko, jakiteko eta egiteko modu alternatibo batera hurbiltzen saiatzen da.

5 Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren metodologiaren eta aipatutako katēgoria bakoitzeko ekintzen identifikazio zehatzago baterako, ikus Sharp (1973, 2005).

horiek hainbat modura konbinatzeaz ari gara, aurkaria indarkeriarik gabe garaitzeko behar den eragin zabala lortzeko helburuz. Hala, Kurt Schocken arabera (2005: 51), “metodo anitz txertatzeak metodo batetik bestera aldatzea errazten du” aurkariak (estatuak, beste mugimendu batek, etab.) indarkeria erabiltzen badu taktika horiei aurre egiteko.

Ikuspegi pragmatiko batean oinarrituz, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimendu bat sortzea eta garatzea puzzle bat osatzea bezalakoa da; hau da, ingeniaritza lan bat, kasu bakoitzean desberdina dena baina zenbait ezaugarri partekatzen dituen. Alde batetik, herritarren zati baten eta eragile anitzen mobilizazioa oinarritzko faktoreetako bat da. Literatura pragmatikoan, bada, erresistentzia zibileko mugimenduen plangintzarako lehenengo fase horri “aliatuen espektroaren” identifikazioa esaten zaio (Oppenheimer & Lakey, 1965, in Shock, 2015b: 137). Bestetik, aurkariak edo aurkariak erabiltzen duten errepresioaren kudeaketa ere identifikatzen da; hau da, mugimenduaren beraren kudeaketa behin aurkariarekin indarkeriarik gabeko interakzioa hasten denean. Izan ere, aurkariak indarkeria bidezko errepresioa arma nagusi bezala erabiltzea espero da. Beraz, indarkeriaren aurrean indarkeria-ezeko estrategia mantentzea helburu nagusi bat izango da (Shock, 2015b: 138). Azkenik, aurkariaren indarren botere iturriak murriztea funtsezkoa izango da. Horretarako, indarkeria-ezeko metodoen aukeraketa taktikoa erabiliko da.

Zentzu horretan, literatura pragmatikoak mekanismo hertsatzaileak ere aipatzen ditu, hau da, aurkaria iritziz aldatzeko helburua duten indarkeria-ezeko mekanismoak. Honako lau mekanismo hauek identifikatu daitezke: konbertsioa, egokiera, indarkeriarik gabeko hertsadura eta desintegrazioa. Konbertsioak arrazoibidearen bitartez aurkariaren jarrera aldatzeko helburua du, indarkeriarik gabeko jarrera batera hurbilduz. Egokieran, aldiz, aurkaria erresistentzian dauden pertsonekin edo mugimenduarekin negoziatzeko prest agertzen da; hala, aurkariaren eskaera batzuk onar ditzake baina ez da hertsadura osoa lortuko. Indarkeriarik gabeko hertsadura indarkeria-ezeko metodoen bitartez aurkariaren jarrera aldatzea lortzeko datza; hala, aurkaria gatazka galtzera edo botere iturri nagusiak galtzera darabada, indarkeria-ezak bere helburuak lortuz. Azkenik, desintegrazioan, indarkeriarik gabeko erronka jasotzen duen egitura desegiten da. Horrek ez du esan nahi indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduen antolakuntzak derrigor urrats horiek eman behar dituenik. Aitzitik, hainbatetan, mugimenduak mugimendu bihurtzen dira horren kontzientzia argia izan gabe (Clark, 2009b: 7). Hala ere, horiek mugimendu eta prozesu gehienek garapenaren puntu kritikoak dira⁶.

Gatazken eraldaketari edo indarkeriarik gabeko mugimenduei eta beren metodologiari lotuta, ikuspegi pragmatikoak *backfire* kontzeptua ere ikertu du. “*Boomerang* efektu” bezala euskaratu dezakegu eta herritar mugimendu eta ekimenen kontrako indarkeriak izan ditzakeen ondorio zuzenei dagokie. Richard Greggek (1960) sortutako kontzeptu hori, jiu-jitsu moral (*moral jiu-jitsu*) kontzeptuaren eragin pragmatikoaren baitan garatu da. Hala, indarkeria erabiltzen den kasuetan indarkeria-ezak izan dezakeen efektuari

⁶ Ikuspegi pragmatiko edo estrategiko batetik indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduen plangintzari buruzko informazio gehiagorako, ikus Marovic (2018) eta War Resisters' International (2014), baita azken horren web orrialdea ere: <www.nonviolence.wri-irg.org/en>.

erreferentzia egiten dio. Indarkeriarik gabeko mugimenduen aurkako indarkeria kaltegarria izan daiteke indarkeria erabiltzen duten horientzat beraientzat. Izan ere, gatazkan parte hartzen ez duten herritarrek eta instituzioek indarkeriarik gabeko mugimenduaren aldeko jarrera garatzeak indarkeria erabiltzen duten horien indarra eta horiek gatazkan duten egoera ahuldu dezake (Martin, 2009b: 94-95).

Aldi berean, James C. Scottek (1989, 2000) erresistentzia zibila modu indibidualean aztertzeke beharra azpimarratu zuen, hau da, gatazka testuingurueta eguneroko zailtasunei aurre egiteko estrategia bezala. Hala, bada, eguneroko erresistentzia (*everyday resistance*) kontzeptua proposatu zuen, indarkeria testuingurueta eguneroko bilakatu diren zailtasunei erantzuna emateko garatzen diren praktika multzoari erreferentzia eginez. Praktika horiek ez dute zertan instituzionalizatuak edo mugimendu baten baitakoak izan. Zentzu horretan, horrek ez du zertan ekintza pragmatikoa izan, baizik eta zapalkuntza egoeren egunerokoan egiten den ekintza edo ekintzak. Hala, ekintza horiek ezkutuko transkripzioak (*hidden transcripts*) dituzte ezaugarri nagusi, hau da, boterearekin kritikoak diren diskurtsoen ekoizpena. Hortaz, berariaz egiten den erresistentzia baino gehiago, erresistentzia instintiboa da. Hori, bada, erresistentzia zibileko ekimen edo mugimendu zabalagoen gehigarri izan daiteke baina, askotan, ez du hala identifikatua izan nahi errepresioa saihesteko (Schock, 2005: 14). Eguneroko erresistentzia ekintza horiek, beraz, ohartu gabeak izan dira indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren ikerketan; alde batetik, ez dituztelako, berez, ekintza politikotzat edo erresistentzia ekintzatzat jo eta, bestetik, kolektibitate batetik kanpokotzat eta ekintza pertsonaltzat hartu izan dituztelako (Scott, 1989: 33). Beraz, mugimenduen ikuspegi batetik, eguneroko erresistentziaren eta erresistentzia zibilaren arteko desberdintasunik handiena metodologian aurkitzen dugu. Izan ere, lehenengo kasuan, ikusten edo identifikatzen ez diren erresistentzia moduak ditugu, eta bigarren kasuan, aldiz, indarkeriarik gabeko gatazka politikoa sortu edo sustatu nahi duten eta, hain zuzen, ikuspegi pragmatiko batera hurbiltzen diren horiek aurkitzen ditugu (*Ibidem*: 35). Dinamika horiek ez dira, alabaina, independenteak edo elkarren baztertzailak. Aitzitik, bateragarriak eta elkarrentzat aberasgarriak izan daitezke eta halaxe izaten dira kasu gehienetan. Izan ere, “eguneroko erresistentzia zibileko moduak indarkeriarik gabeko borroka zabalagoen ‘beharrezko parte’ dira” (Mujika Chao, 2017: 32-33).

Ildo horretatik erresistentzia zibilari buruzko hurbilketa pragmatikoarekin kritikoak diren ikuspegiak garatu dira, honako hauei lotuta: horrek botere harreman jakin batzuekin (esaterako, genero harremanekin) duen eraginkortasuna; epe laburreko eta eraldaketa puntualeko helburuetan barik epe luzeko eta gizarte eraldatzeko helburuetan zentratzeke beharra, indarkeriaren inguruan norberak duen jarrera eta gizarte kulturaren

Gatazka testuingurueta eguneroko zailtasunei aurre egiteko estrategia bezala ulertzen da eguneroko erresistentzia, indarkeria testuingurueta eguneroko bilakatu diren zailtasunei erantzuna emateko garatzen diren praktika multzoari erreferentzia eginez. Praktika horiek ez dute zertan instituzionalizatuak edo mugimendu baten baitakoak izan, hau da, ez du zertan ekintza pragmatikoa izan, baizik eta zapalkuntza egoeren egunerokoan egiten den ekintza edo ekintzak.

txertatutako indarkeria estruktural desberdinak eraldatzeko helburuz; edo erresistentziaren ikuspegi zabalagoa garatzea, joera pragmatikoan identifikatzen ez diren beste erresistentzia mota batzuk kontuan hartuz (diskurtsiboak, testualak, gorpuztuak, etab.).

Beraz, indarkeria-ez pragmatikoak arrazoi estrategikoak aipatzen ditu indarkeria-eza erabiltzeko. Aitzitik, gatazkak modu baketsuan eraldatzeko ikuspegiak indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila gatazkak eraldatzeko tresna bezala interpretatzen du, baina ez praktika pragmatiko edo estrategiko gisa. Izan ere, hori hautu etikotzat hartzen du, banakako mailan ere, gizarte justizia eta bake positiboa lortzeko helburua duen gizarte eraldaketari lotua. Aldi berean, bakegintzari buruzko literaturan, batez ere ikuspegi post-liberalen eremuan, azken hamarkadan erresistentziaren kontzeptua gerraosteko bakegintza testuinguruekin identifikatzen dute. “Bake liberalari” aurre egiteko kontzeptutzat eta tresnatzat hartzen dute, baita tokiko biztanleek testuinguru horietan eta instituzio liberalen eragina gorabehera, beren agentzia gaitasuna adierazteko eremu gisa ere (Richmond, 2010: 685).

Beraz, erresistentzia zibilar buruzko hurbilketa pragmatikoak eta post-liberalek bakegintzari egindako ekarpenek gizartea aldatzeko ardatz zentraltzat hartzen dute indarkeriarik gabeko erresistentzia. Izan ere, horiek bi eremu independente dira, elkarren artean loturarik ez dutenak baina eraldaketa sozial eta politikoaren inguruko kontzeptuak, helburuak eta ikuspegiak partekatzen dituztenak (Dudouet, 2017). Era berean, gatazkaren eraldaketari buruzko ikuspegi baten garapena sumatu daiteke, hasiera batean indarkeria-ez pragmatikoak garatutako corpus teorikoan oinarritzen bada ere, printzipiozko indarkeria-ezarekin gehiago lotzen dena. Horretan, indarkeria-eza gatazka armatuetan esku-hartzeko tresnatzat edo horien emaitzatzat hartzen da. Ikuspegi pragmatikoaren une gorenean, printzipiozko indarkeria-eza etikoarekin lotutako ikuspegi pazifista bigarren maila batean geratu bazen ere, ikuspegi horren berragertze bat identifikatu daiteke oraintsu. Ekarpen horiek, bada, bakezaletasunak eta indarkeria-ez etikoak eraldaketa sozial eta politikoan eta nazioarteko politikaren garapenean duten balioa nabarmentzen dute. Hala, erdigunean jartzen dituzte Bake Ikasketen oinarritzko kontzeptuak, hala nola, indarkeria-eza bera edo bake positiboa.

3. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimendu eta ekimenei zuzendutako nazioarteko lankidetzak eta elkartasuna

Indarkeriaren aurkako borroka, maiz gatazka asimetrikoko testuinguruetan ematen direnak, armatu gabeko erresistentzia zibil mugimenduek nazioarteko lankidetzak eta/edo elkartasunaren laguntza bilatzea dakar. Azken hamarkadetan, indarkeriarik gabeko ekimen, mugimendu eta prozesuei dagokienez, lankidetzak transnazionalaren inguruko interesa handitu da. Hala, hainbat “esperimentu” (Clark, 2009a: 89) egin dituzte indarkeriarik gabeko esku-hartze transnazionalarekin edo talde zibilen mugaz gaindiko ekintzarekin, horiek 1990eko hamarkadaz geroztiko gatazka irekietan esku-hartze militarren alternatiba bezala identifikatuta. Azken urteotan indarkeriarik gabeko ekintzaren adibideak ugaritu dira, indarkeriarik gabeko beste ekimen batzuk babestea eta indarkeriaren eta gatazken hedapena ekiditea helburu duen hirugarren eragileen mugaz gaindiko esku-hartzea, esaterako (Dudouet, 2015b).

3.1. Nazioarteko elkartasunaren ezaugarri orokorrak eta tipologia

Nazioarteko babes hori bilatzeak arrazoi desberdinak izan ditzake, hala nola: komunitateen biziraupena bera nazioarteko elkartasunari esker eta horren bitartez lurralde jakinetara, adibidez Palestinara, eraman daitezkeen elikagaiak eta ondasunak; indarkeriarik gabeko gatazka eraldaketarako ekimen baketsuei bideratutako finantza-lankidetzak; edo indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilak ematen diren eremuetan nazioarteko presentzia garatzea, indarkeria-eza eta gatazka eraldaketa baketsua bera ere susta dezakeena. Nolanahi ere, nazioarteko laguntzak “funtsezko” rola izan dezake indarkeriarik gabeko mugimendu edo kanpainetan (Dudouet & Clark, 2009: 5). Hala, gizarte zibileko erakundeek zein gobernu organismoek, baita gobernu kanpokoek ere, mugimendu horiek lagun ditzakete, bai finantza-lankidetzaren bitartez, fondo ekonomikoen bitartez, bai beste edozein bideren bitartez.

Orokorrean, laguntza baliabideak Giza Eskubideen, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren edo balio herritarren sustapenaren nazioarteko estandarretan oinarritzen dira. Hala ere, nazioarteko

Indarkeriaren aurkako borroka, maiz gatazka asimetrikoko testuinguruetan ematen direnak, armatu gabeko erresistentzia zibil mugimenduek nazioarteko lankidetzak eta/edo elkartasunaren laguntza bilatzea dakar; azken hamarkadetan, indarkeriarik gabeko ekimen, mugimendu eta prozesuei dagokienez, lankidetzak transnazionalaren inguruko interesa handitu da.

lankidetzaren eta laguntzaren harreman hori gauzatzeko bide desberdinak izan daitezke. Hasierako ikuspegiak, nolabait, konnotazio negatiboak zituzten, batez ere, eta azpimarratzen zuten erresistentzia zibil mugimenduak ezin zirela kanpo eragileen menpe egon eta lankidetzak izaera osagarri bat izan behar zuela. Aitzitik, azken urteotan, dinamika horren inguruko interesa handitu da, bai indarkeriarik gabeko ekimenetatik eta bai ikerketatik ere. Hala, nazioarteko elkartasunak mugimendu horiei egindako ekarpenetan jarri da arreta (*Ibidem*: 14). Howard Clarke eta Véronique Dudouetek, elkarrekin egindako lanetan zein bakarka egindako horietan, ekarpen nagusietako bat egin dute ildo horretan (Clark, 2009a; Dudouet & Clark, 2009; Dudouet, 2006, 2008, 2015a, 2015b).


Erresistentzia Ikasketen eremuan, nazioarteko elkartasuna indarkeriarik gabeko mugimenduetara bideratutako kanpoko laguntza edo nazioarteko ekintza bezala identifikatzen da. Alabaina, eremu zabal horretan, nolabait, indarkeriarik gabeko mugaz gaindiko mugimenduen arteko sei ekimen edo lotura mota nagusi hauek identifika daitezke (Clark, 2009a: 89):

1. Epe laburreko delegazioen antolaketa, giza eskubideen edo elkartasunaren aldeko instituzioen, taldeen edo sektoreen eskutik.
2. Epe luzeko delegazioen antolaketa, bake proiektuak, esaterako.
3. Herrien, taldeen edo bake ekimenen arteko trukea.
4. Gai jakinen inguruko prestakuntza, edo gaitasun zein trebetasun jakinak garatzeko prestakuntzen antolakuntza.
5. Gatazka eremuetako bake taldeek edo talde bakezaleek bakeari buruzko nazioarteko sareetan parte hartzea.
6. Bidezko merkataritza sustatzea bake ekimenen ekoizpenarekin.

Ekimen horiez gain, gaur egun, hirugarrenen ekintza⁷, bide-laguntza edo akonpainamendua, edo “*boomerang* efektua” bera ere identifikatzen dira, adibidez. Hala ere, hirugarrenen esku-hartze *mainstreamagoak* kategoriatik kanpo geratuko lirake: diplomazia prebentiboa, bitartekaritza edo gatazkako aktoreen arteko elkarrizketa errazteko ekimenak, garapenerako lankidetzaren, edo bakea mantentzeko nazioarteko ekimenak (Dudouet, 2015b).

7 Testuinguru horretan, hirugarrenen alderdiak indarkeriarik gabeko ekimenaren edo oposizioaren parte ez diren horiek dira, gatazka duen gizartearen kideak zein atzerriarrak izan (Sharp, 2005: 471). Dudoueten arabera (2015b) eta hasierako definizio hori aintzat hartuz, bi motatako hirugarren alderdiak daude: 1) gatazka duen gizartearen aktore aliatuak, bai oposizioaren sektorean bai sektore independenteetan; eta 2) nazioarteko edo gatazka duen gizartearen kanpoko aktore aliatuak, esaterako, nazioarteko organismoak, atzerriko gobernuak, gatazka testuinguruaz kanpoko herritar ekimenak, etab.

Nazioarteko testuinguruak azken hamarkadetan izan duen bilakaerak, bada, nazioarteko sistemaren eta aktoreen eraldaketa ekarri du, baita gizarte mugimendu transnazionalena eta horiek babesteko moduena ere. Horren ondorioz nazioarteko elkartasunak, lankidetzaren bitartez, indarkeriarik gabeko erresistentzia mugimenduak lagun ditzake. Horretarako hainbat tresna erabil ditzake, hala nola, laguntza zuzena (ekonomikoa edo nominatiboa), harreman diplomatikoak edo finantza arloko aholkularitza zein aholkularitza tekniko⁸. Ondorengo eskemak nazioarteko testuinguruaren ikuspegi zabala ematen du, indarkeriarik gabeko esku-hartzeari edo laguntzari eta horrek har ditzakeen forma ugarietara dagokienean. Egileak testuinguru horretan nazioarteko arauen ezarpena irudikatzeko erabiltzen badu ere, eskema aurretiko identifikaziorako ere egokia dela deritzogu.



Iturria: Eguren (2009). Egileak itzulia.

Orokorrean, indarkeriarik gabeko esku-hartzea, Clarken arabera (2009a: 89), hiru ekimen edo jarduera nagusi hauetan banatzen da: nazioarteko elkartasun sareetako protesta tradizioan zentratzen diren horiek; izaera instituzionalagoa duten horiek, bakea eta berradiskidetzeta sustatzeko helburuz nazioarteko boluntario taldeak antolatzen eta kudeatzen dituztenak; eta esku-hartze armatu edo militarren aurrean indarkeriarik gabeko alternatibak garatu nahi dituzten horiek⁹.

Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimenduak babesten dituzten nazioarteko lankidetzeta eta elkartasun aktoreen nazioarteko testuinguru eta mugimendu horiei zuzendutako finantza-laguntzaren inguruko ereduak kontuan hartuz, hurrengo ataletan nazioarteko laguntzari dagokion zatia aztertuko dugu. Hala, finantza-laguntzaz gain, beste zenbait laguntza modu aipatuko dugu.

8 Zentzu horretan, Europar Batasunak indarkeriarik gabeko oinarriko mugimenduei zuzendutako laguntza aukerei buruz Dudouetek eta Clarkek egindako lana (2009) nazioarteko lankidetzeta mota horri buruzko adibide urrietako bat da.

9 Indarkeriarik gabeko ekimen zibilen artean ematen den nazioarteko edo mugaz gaindiko lankidetzak ekimen horien inspirazioa eta, hain zuzen ere, esku-hartze armatuen aurrean indarkeriarik gabeko alternatiben garapenak Gandhiren pentsamendura garamatzate berriz ere. Izan ere, Gandhik, Shanti Sena edo Bake Armadatzat hartzen zituen bakea mantentzeko armarik gabeko ekimenak (*unarmed peacekeeping*).

3.1.1. Kanpo-laguntza edo nazioarteko gobernu-ekintza

Gobernu edo gobernu arteko laguntza herrialdeek edo gobernu arteko erakundeek indarkeriarik gabeko mugimenduei edo antzeko mugimenduei ematen dieten laguntzak ahalbidetzen duten harremani dagokie. Mugimendu horiek beren burua indarkeriarik gabekotzat jotzen ez badute ere, praktikan oso antzekoak dira. Hemen, finantziario zuzenaz gain, laguntza diplomatikoa eta/edo esku-hartzea identifika daitezke (Dudouet & Clark, 2009). Normalean, finantza-lankidetzeta gizarte zibileko erakundeei zuzendutako laguntzen bitartez gauzatzen da. Hala, indarkeriarik gabeko mugimenduak laguntzeko aukera sortzen du. Hala ere, horrek ez du esan nahi erakundeei funtsak emanaz automatikoki indarkeriarik gabeko mugimenduak finantzatzen ari direnik. Izan ere, aldi berean, finantza-lankidetzeta hori jarduera espezifikoko hauen bitartez ere burutu daiteke: bekak, informaziorako edo hedabideen garapenerako laguntza, indarkeriarik gabeko erakundeen edo mugimenduen arteko harremanak sustatzea, etab. Gobernuek eta gobernu arteko erakundeek rol garrantzitsua izan dezakete mugimenduei babesa eta laguntza eskaintzeari dagokionean.

Halaber, gobernu-erakundeek ere indarkeriarik gabeko ekimenak laguntzeko ekimen transnazionalak burutu ditzakete. Dena den, beste herrialde baten gaietan nahastea debekatzen duten nazioarteko arauak direla-eta, ekimen horiek zailtasun handiagoak dituzte. Hala ere, Dodoueten esanetan (2015b), arau horiek aldatzen ari dira nolabait; izan ere, azken urteotan, hauteskunde prozesuen nazioarteko monitorizazioa, besteak beste, ohiko praktika bilakatu da eta oposizioko herritar mugimenduekiko lankidetzeta zuzena ere ematen da balio unibertsal batzuen eraginpean. Hala ere, gaur egun, mugimendu horien indarkeria-ezeko izaeraren eta horiei zuzendutako nazioarteko lankidetzaren azterketari buruzko corpus teorikoa dela eta, lankidetzeta hori gobernu kanpoko aktoreek egin ohi dute, hala nola, atzerriko gizarte mugimenduek edo mugimendu transnazionalak.

3.1.2. Hirugarren alderdien esku-hartzea eta bide-laguntza

Hirugarren alderdien esku-hartze zein bide-laguntza edo akonpainamendu bezala identifikatzen ditugu indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduaz kanpoko hirugarren alderdiek mugimendu horri laguntzeko helburuz egindako ekimenak. Hala, esku-hartze edo laguntza hori honako hauen bitartez burutu daiteke: gizarte zibileko erakunde sareak, gizarte mugimendu transnazionalak edo GKEak, indarkeriarik gabeko ekimenaren kidekoak direnak. Horien estrategia edo helburua tokiko aktibistak laguntzea da (Dudouet, 2015b). Orokorrean, bada, gobernu kanpoko nazioarteko laguntza mota bi hauek ditugu: diasporatik datorrena eta atzerriko antzeko mugimenduetatik, hala nola, gizarte mugimenduetatik, GKEetatik edo GKE sareetatik datorrena (Dudouet & Clark, 2009: 15). Lehenengo kasuan, diasporan dauden pertsonak, baliabideak mobilizatuz, beren jatorrizko herrialdeetan mugimenduak eratzen lagun dezakete. Esate baterako, Kosovon, 1989 eta 1997 artean independentziaren aldeko indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduan, diasporak baliabideak mobilizatu zituen ez bakarrik familia mailan, baita erresistentzia zibil mugimenduaren oinarri ekonomiko nagusietako bat bihurtuz ere (Clark, 2000).

Halaber, kanpo-laguntza erresistentzia zibil mugimenduaren beraren testuinguru sozial, politiko eta geografikoaren barruan ere eman daiteke. Izan ere, horrelako kasuetan, aktibistak edo mugimenduak laguntzeak segurtasun bermeak eman diezaie indarkeriazko testuinguruan aritzen den mugimenduko kideei. Nazioarteko Bake Brigadak (*Peace Brigades International*), bada, nazioarteko laguntzaren adibide nagusietako bat dira. Hemen, helburu nagusia indarkeria-ezaren diziplinaren bitartez bakea mantentzeko eta bakea eraikitzeko lanak burutzea da¹⁰. Halaber, 1990ko hamarkadan, Bosnia-Herzegovinako gerran lehenbizi eta Kosovoko gerra gero, *War Resisters' International* sareak bultzatutako Britainia Handiko *Balkan Peace Team* ekimenak indarkeria-ezko hainbat ekimen lagundu zituen lurralde horietan. Izan ere, ekimen horren helburua mugimendu horiei laguntza, ezagutzak eta babesa eskaintzea zen¹¹. Gaur egun, adibidez, *Nonviolent Peaceforce* ekimenak laguntza eskaintzen die indarkeriarik gabeko hainbat ekimeni (Hego Sudanen, Filipinetan, Myanmarren edo Iraken, besteak beste). Horrela definitzen du bere lana: “armarik gabeko estrategien bitartez biztanle zibilak babestea”¹². Lekuan bertan indarkeriarik gabeko hainbat mugimenduri laguntza eskaintzen dieten ekimenak dira hauek, babesa, baliabide teknikoak eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren inguruko ezagutzak eskaintzea helburu dutenak. Hemen, bada, “*boomerang* efektua”¹³ aurkitzen dugu, antzeko mugimendu transnazionalekin nazioarteko aliantzak bilatzeari dagokionean. Hala, aliantza horien helburua mugimendua bera eta aurkariaren indarkeria zein Giza Eskubideen urraketa maila altuak bistaratzean datza. Horren bitartez, indarkeriaren agerikotasunak gatazkan eragin zuzena izatea bilatzen da. Ondorengo taulak, bada, gatazka testuinguruan dauden indarkeriarik gabeko ekimenak lagundu nahi dituzten hirugarren aktore horiek martxan jarri ditzaketan mekanismo desberdinak erakusten ditu, beraien helburuen arabera.

10 Informazio gehiago hemen: <www.peacebrigades.org/en> (2018ko urriaren 15ean kontsultatua); Martin, 2009b.

11 Informazio gehiago hemen: <www.wri-irg.org/en/story/2014/balkan-peace-team> (2018ko urriaren 15ean kontsultatua).

12 Informazio gehiago hemen: <www.nonviolentpeaceforce.org/background/mission-history> (2018ko urriaren 15ean kontsultatua).

13 Literatura pragmatikoak ere jiu-jitsu moralaren kontzeptua (gida honen bigarren atalean azertu duguna) identifikatzen badu ere, “*boomerang* efektua” nazioarteko laguntzak indarkeriarik gabeko ekimenei eskaini diezaieken efektuei dagokien modu espezifikoan. Ikus: Martin, 2009b.

1. taula: Indarkeriarik gabeko borroka laguntzeko mekanismoak						
	Sustapena	Gaitasunak garatzea	Loturak sustatzea	Babesa ematea	Monitorizazioa	Presio-fokuak garatzea
Ekitaldietara gonbidatzea, konferentziak antolatzea	X	X	X			
Manifestazioetan parte hartzea, kartzelara bisitak egitea, epai-prozesuak monitorizatzea	X			X	X	
Babes laguntza	X			X	X	
Aterpea edo bisak eskaintzea	X			X		
Bekak/sariak eskaintzea, babesa publikoki adieraztea	X			X		X
Finantzazioa	X	X	X	X	X	X
Hauteskundeen monitorizazioa					X	X
Finantzazioari boikota eta zigorrak	X					X

Iturria: Dudouet (2015b).

Zentzu horretan, nahiz eta erresistentzia zibileko mugimenduekiko lankidetza jarduera gehienak ekimen zibilak izan, Dudouetek (2015b) laguntza mota desberdinen abantailak eta ezaugarriak alderatzen ditu. Laguntza hori gobernuko zein gobernu kanpoko organismoetatik etor daiteke. Hala, alde batetik, gobernuaren laguntzak inpunitate diplomatikoa erabil dezake aktibistei aterpea edo babesa emateko; gatazkan eragin dezake, estatu arteko harremanak erabiliz; edo herritar mugimenduen aurkako estatuari (edo estatuei) presioa egin diezaioke. Beste alde batetik, gobernu kanpoko ekimenek (gizarte mugimenduek, GGKEek, gizarte zibileko erakundeek, etab.) beste abantaila batzuk dituzte. Abantaila horiek, bada, beste maila batzuetan eta beste tresna batzuen bitartez jardutea ahalbidetzen diete ekimen horiei. Izan ere, normalean, horiek indarkeriarik gabeko mugimenduetatik hurbilago daude; jarduteko malgutasun handiagoa dute eta, hortaz, premia larriei erantzuteko erraztasun handiagoa ere bai; askotan, gatazkan indarkeriarik gabe esku-hartzeko prestakuntza espezifiko dute eta, hortaz, eraginkorragoak izan daitezke beren lanean; eta, aldi berean, gobernu aktoreengan eragina duten nazioarteko arauak ez dute eragin bera horiengan eta, ondorioz, horiek baino jarduteko tarte handiagoa dute. Zentzu horretan, bada, Dudouetek (2015b) gobernu kanpoko erakundeen sei interakzio eta jardura mekanismo identifikatzen ditu (aurreko taulan identifikatuak) eta honela sailkatzen ditu: dimentsio positibo edo pro-aktiboak dituzten mekanismoak (tokiko mailan eremu eta aktore aliatuak bilatzeari dagozkionak) eta dimentsio negatiboak edo erreaktiboak dituzten mekanismoak (aktibistak errepresioaren aurrean babestea edo erregimen zapaltzailearen nazioarteko legitimitateari aurre egiteko). Honako hauek dira mekanismo horiek:

- a) Sustapena. Kanpoko aktore bezala duten eragina erabiltzea, nazio mailan eta nazioartean aktibistek duten ikusgarritasunean, sinesgarritasunean eta legitimitatean eragite aldera. Beraz, indarkeriarik gabeko erresistentzian dauden tokiko komunitatei babes sinboliko eta materiala ematea da.
- b) Gaitasunak garatzea. Laguntza tekniko eta ekonomiko eskaintzea, erresistentzia zibil mugimenduak garatzeko eta mobilizatzeko helburuz. Hala, neurri handi batean, mugimenduak sortzeko eta garatzeko hasierako faseez ari gara. Horretarako, jardura desberdinak erabiltzen dituzte, hala nola, hauek: indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilari buruzko material teorikoak ematea, metodoen inguruko ezagutzen transferentzia, edota aktibistak topatzeko eta ezagutzak eskuratzeko tailerrak antolatzea. Kasu horretan, bada, finantza-laguntza gobernu edo gobernu arteko organismoetatik etortzea espero da¹⁴.
- c) Loturak sustatzea. Komunikazio-bide efektiboak garatzeko tresnak eskaintzea, material teknikoak emanez eta tresna horiei eta hainbat gaiei buruzko prestakuntza saioak eginez: informazioa eta komunikazioa kudeatzeko sistemak, harreman publikoak, kanpainen antolaketa eta garapena, etab. Hala, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduak laguntzeko tresna garrantzitsu eta boteretsuenetako bat da hau. Izan ere, gaur egun, weba funtsezko baliabidea da indarkeriarik gabeko mugimenduen nazioartekotzean. Halaber, atal honetan mugimendu desberdinetako aktibisten arteko harremanak sustatzen dituzten ekimenak ere badaude, baita leku geografiko desberdinetan dauden mugimendu bereko aktibisten arteko harremanak sustatzen dituztenak ere.
- d) Babesa ematea. Mekanismo honek forma ugari har dezake, besteak beste, babes zibila, bide-laguntza edo akonpainamendu fisikoa, kartzelatutako aktibisten izenean kanpainak edo jarduerak egitea, etab. Horrek, bere aldetik, aktibistentzako espazio seguruak sortzen lagunduko luke. Era berean, hor sartuko lirakeke bakea mantentzeko armarik gabeko ekimenak (*unarmed peacekeeping*), lehen aipatu ditugunak.
- e) Monitorizazioa. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduak laguntzeko modu ohikoenetarikoa bat da; izan ere, aurreko mekanismoetan parte hartzen ez duten aktoreek gehien erabiltzen duten dimentsioa da. Hala, ekimen horiek zeharkako modu batean laguntzeaz ari gara; giza eskubideen urraketak identifikatuz, larderia kasuetan lekuko gisa deklaratu, ekimen sinbolikoak eginez, etab. Normalean gatazkaren eremuan bertan garatzen da.
- f) Presioa. Hirugarren alderdiek eta indarkeriarik gabeko mugimenduek aurkako aktoreekiko interakzioa lortzeko metodo ohikoena. Helburu nagusia aurkariaren jarrera aldatzea edo ahultzea da, elkarrizketaren edo limurtze politiko zein ekonomikoaren bitartez¹⁵. Hala, gatazkaren testuinguru geografikoaz kanpoko protesta ekintzak izan daitezke. Mugimenduaren nazioartekotzean laguntzea, aurkako aktoreen arteko harremanean eragitea, dagokion gobernuak laguntzea edo gobernu edo gobernu arteko aktoreek egindako presioari laguntzean datza. Horretarako aktore horiek me-

¹⁴ Mugimendu eta ekimen askok uko egiten diote beste estatu batzuen finantza-laguntzari. Hori da, hain zuzen ere, Iraneko emakume aktibisten kasua; izan ere, horiek ez dute beste estatu batzuen txontxongilotzat hartuak izan nahi.

¹⁵ Faktore horrek eragin zuzena du lehen aipatutako “boomerang efektuan”.

kanismo eta tresna desberdinak erabiliko dituzte, hala nola harreman diplomatikoak, adierazpen publikoak, giza eskubideen urraketen gaitzespen publikoa, zigorrak, etab.

Nahiz eta indarkeria-ezeko izaera eksklusiboa eta formatu ugari dituen, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimendu edo prozesuei zuzendutako nazioarteko edo mugaz gaindiko lankidetzak hainbat arrisku ere izan ditzake. Hurrengo atalean horietako batzuk identifikatuko ditugu.

3.2. Nazioarteko eta mugaz gaindiko ekintzaren inguruko eztabaidak eta alderdi kritikoak

Orokorrean, nazioarteko lankidetzak edo elkartasuna, hartzen duen forma gorabehera, elementu positibo edota funtsezkotzat jotzen da, momentu jakinetan. Alabaina, kalterako indar bat eta zenbait kasutan, “desboteretzailea” ere izan daiteke (Dudouet & Clark, 2009: 17). Halaber, nazioarteko lankidetzak eta, hain zuzen, finantzazio zuzenak kalte egin diezaiekete mugimenduei. Izan ere, lankidetzak horrek, zenbait kasutan, erakunde hartzaileek forma legal jakin bat izatea eskatzen du (GKE forma, adibidez). Gainera, GKEek mugimenduak osatzen dituzten kasuetan, mugimenduek beren misioak eta helburuak alda ditzakete finantzazio iturriak lortzearen. Hortaz, maiz, literatura kritikoa izaten da nazioarteko lankidetzaren edo elkartasunaren hainbat alderdirekin (Dudouet, 2015b; Martin 2009a), eta lankidetzak laguntza bat besterik ez duela izan behar adierazten du, indarkeriarik gabeko mugimenduen ideia edo oinarri nagusiak aldatzen ez dituen.

Lehen aipatu dugun bezala, nazioarteko lankidetzak mota hori urria izan ohi da. Nolanahi ere, zenbait ikerketek indarkeriarik gabeko mugimendu edo prozesuei zuzendutako lankidetzak mota horrek aurrean dituen hainbat arronka, dilema edo eztabaidarako elementu identifikatu ditu¹⁶. Hona hemen dilema horietako batzuk:

- Aurkariek ere indarkeriarik gabeko metodoak erabili ditzakete. Hau da, oposizioa ez da beti biolentoa, ez du zertan indar edo instituzio armatu bat izan. Izan daiteke indarkeriarik gabeko mugimendu biren edo gehiagoren artean oposiziozko banaketa bat ematea. Izan ere, edozein pertsonak, taldek edo ekimenek erabil dezake indarkeria-eza eta horren erabilerak ez du zertan kausa on baten aldekoa izan (Martin, 2009a). Kasu horietan, indarkeriarik gabeko ekimenei arrazoi etikoengatik zuzendutako lankidetzak edo elkartasunak, honako dilema hauei egin behar die aurre: zergatik adierazi elkartasuna indarkeria-ezari, edo indarkeriarik gabeko zein aukera sostengatu, kasu.
- Indarkeria-ezeko metodoak indarkeriazko metodoak babesteko ere erabil daitezke, edo alderantziz (Martin, 2009a; Dudouet, 2008). Are gehiago, indarkeriarik

¹⁶ Indarkeria-ezari eta inperialismoari buruzko eztabaida ugari eragina izan du indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimenduei zuzendutako lankidetzaren edo elkartasunaren ezaugarriak aztertzen dituzten ikerketen garapenean, joera pragmatikoko hainbat pentsalariri inperialista eta konspiratzaile izatea leporatu izanaren harira. Horrek guztiak AEBko gobernuak indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimenduak finantzatzeko zenbait ekimenekin kointziditu zuen. Informazio gehiagorako, ikus: Martin (2009a) eta Lakey (2009).

gabeko erresistentzia zibil mugimendu batean indarkeriazko metodoak erabiltzen dituzten taldeak ere izan daitezke. Horrek, beraz, eragin zuzena du indarkeriarik gabeko mugimenduaren garapenean eta eraginean.

- Nazioarteko elkartasuna lortzen duten indarkeriarik gabeko mugimenduek ez dute zertan gizarte ekitatearen edo gizarte justiziaren aldekoak izan. Aitzitik, horiek erabat pragmatikoak eta kausa jakin baten aldekoak izan daitezke.

Halaber, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduei zuzendutako kanpoko esku-hartzeari dagokionez, Dudouetek (2015b) hiru dilema nagusi hauek identifikatzen ditu: a) partzialtasuna inpartzialtasunaren aurrean; b) esku-hartzearen hutsaltasuna; eta c) tokiko/komunitatearen jabeakuntza (*local ownership*). Lehenengo dilema gatazkaren eta horretan parte hartzen duten aktoreen inguruan hirugarren alderdiek hartzen duten jarrera etiko eta estrategikoari dagokio. Hala, literaturan banaketa bat sumatzen da, alde batetik, hirugarren aktoreen inpartzialtasunaren eta, garatu daitezkeen rol eta jarduera anitzen bitartez, gatazkak eraldatzearen aldekoen artean, eta bestetik, aktore horien partzialtasunaren edo inpartzialtasunaren arteko jarrera dutenen artean. Lehenengo kasuan, inpartzialtasuna gatazkan parte hartzen duten aktoreei dagokien faktore nagusitzat hartzen da, betiere gizarte justiziaren alde baldin bada. Bigarren kasuan, aldiz, gatazkan indar gutxiago duten aktoreen alde berariaz egindako lanaren garrantzia identifikatzen da, hau da, gatazkaren asimetria haustearen edo aktore ahulena sendotzearen alde.

Bigarren dilema (esku-hartzearen hutsaltasuna) laguntzak izan edo irudika ditzakeen interes ekonomiko, estrategiko edo etikoei dagokie. Horrek, bada, laguntza hori indarkeriarik gabeko ekimenetik urrunduz dezake. Normalean, kritika mota hori gobernu edo gobernu arteko organismoen zuzendu ohi zaie, adibidez, Europar Batasunari. Beraz, erakunde horien lehentasunak aipatzen dira, hain zuzen, horiek justizia sozialaren eta giza eskubideen defentsaren gainera bestelako helburu ekonomikoak edo politikoak lehenesten dituztenean. Azkenik, hirugarren dilema tokiko jabeakuntzari dagokio. Hori, bada, tokiko ekimenei edo ekimen komunitarioei mugimenduaren garapena eta norabidea gidatu eta buruaskiak izan beharri dagokio. Eztabaida, beraz, aukera hori ahalbidetzen duen elkartasun edo esku-hartze bat identifikatzeari buruzkoa da, baita horren egokitze mailari buruzkoa ere bai. Zentzu horretan, kritikak “kanpo-laguntzaren nahi ez diren ondorioei” dagozkie. Izan ere, laguntza horrek ez ditu zertan mugimendu komunitarioen eskaerak adierazten, edo ez dira biztanle guztiak modu egokian ordezkatzeko dituzten ekimenei zuzendu-takoak.

Problematika horiei lotuta, hurrengo atalean hainbat gomendio operatibo bildu ditugu, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduei zuzendutako nazioarteko eta mugaz gaindiko laguntza kasuetan kontuan hartzea komenigarri direnak.

Nahiz eta indarkeria-erresistentzia ez izan, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko mugimendu edo prozesuei zuzendutako nazioarteko edo mugaz gaindiko lankidetzak hainbat arrisku ere izan ditzake. Orokorrean elementu positibo edo funtsezkotzat jotzen da, momentu jakinetan, baina kaletarko indar bat eta zenbait kasutan, “desboteretzailea” ere izan daiteke.

4. Gomendio operatiboak indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil ekimenen babes kasuetan

Indarkeria-ezaren eta/edo indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduen azken aldiko ibilbidea zein ekimen horien bitartez nazioarteko elkartasuna sortzeko bide nagusiak identifikatu ostean, beharrezkoa da hainbat esperientzia eta kasu-ikerketatan oinarritzen diren hainbat gomendio biltzea.

Nazioarteko lankidetzak tokiko erakundeekiko gatazka eta gatazka osteko eremuetan dituen ezaugarriak dagokienez, Garapen Ikasketen tradizio luzea erabilgarria izan daiteke gomendio horiek aberasteko. Erresistentzia Ikasketen eremuan antzekotasunak badaude ere, honako desberdintasuna nabarmena da: indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduek ez dute zertan GKEz edo erakundez osatuta egon eta, hortaz, ez dira beti aipatutako funtzionamendu eremu horretan sartzen. Elkartasun ekimen informalekoak dira, indarkeria-ezaren tradizioan kokatzen direnak. Hala, maiz, tradizio hori printzipiozko ikuspegi edo ikuspegi etiko batetik ulertzen da eta, hortaz, ez du eremu horren dinamika monetarioetan zertan sartuta egon. Beraz, gehiago sakonduko dugu azken kasu horretan.

Indarkeriarik gabeko mugimenduei zuzendutako nazioarteko lankidetzaren, laguntzaren edo elkartasunaren azterketa garapen bidean dagoen eremua da. Hala ere, horren inguruan egindako zenbait ikerketak lankidetzak horrek “mugimendua bera, bere estrategia, baldintzak eta premiak ulertzeko” beharra identifikatzen du. Izan ere, kanpo-laguntza mugimenduaren edo prozesuaren “hedadura bat da, ez ordezkotzat” eta ekimen laguntzaileek etengabeko harremana izan behar dute horrekin (Dudouet & Clark, 2009). Halaber, Dudoueten arabera (2015b), “laguntza transnazionala lagungarria eta, batzuetan, funtsezkoa da, baina beste kultura eta pentsatzeko eta egiteko beste modu batzuen inguruan ikastea eskatzen du”. Zentzu horretan, bada, indarkeriarik gabeko mugimendu edo prozesuei zuzendutako nazioarteko elkartasunaren edo lankidetzaren inguruko gomendioek “behetik gorako demokratizazio” edo “*democratisation-from-below*”

jarraibide orokorra jarraitu eta hori babestu beharko lukete (Dudouet & Clark, 2009). Hala, Dudouetek (2015b) hiru “urrezko arau” hauek identifikatzen ditu, esku-hartze horiei dagokienez

Dudouetek hiru “urrezko arau” identifikatzen ditu esku-hartze horiei dagokienez: koordinazio egokia izatea; giza eskubideen balio eta arau unibertsalen defentsa eta inplementazioa egitea; eta, tokiko mugimenduen premia espezifikoak arreta jartzea eta errespetatzea.

1. Hainbat tresnaren koordinazio egokia, baita metodo partzial edo inpartzialekin harmonian ere, hori beharrezkoa den kasuetan.

2. Giza eskubideen balio eta arau unibertsalen defentsa eta inplementazioa, eta demokrazia sendotasunez sustatzea.
3. Tokiko mugimenduen edo mugimendu komunitarioen premia espezifikoei arreta jartzea eta horiek errespetatzea, aktibista horien babeserako bigarren mailako indar bat izate aldera. Horregatik, “laguntza” kontzeptua baztertzeko joera zabaldu da, horrek konnotazio negatiboak baititu tokiko biztanleentzat.

Idea nagusi horietatik abiatuta hainbat estrategia edo gomendio identifika daitezke. Hurrengo ataletan eragin handiena duten horietan sakonduko dugu.

4.1. Harreman horizontalak garatzea

Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduei zuzendutako nazioarteko elkartasun edo mugaz gaindiko lankidetzak ekimenen inguruan izandako kritika eta eztabaidetatik abiatuta, funtsezkotzat jotzen dugu mugimenduen eta hirugarren alderdien arteko horizontaltasuna mantentzea. Literaturaren arabera, laguntza horrek puntuala edo kasuala izan behar du, hau da, “hedadura bat” (Dudouet & Clark, 2009) edo babes dimentsio bat eta ez mugimenduaren ardatz nagusi bat. Hortaz, babes hori tokiko ekimenen premietara moldatu edo egokitu behar da, horiek baitira honako hauek hobekien ezagutzen dituztenak: tokiko testuinguru sozio-historiko eta politikoa, beraiek gatazkan duten rola eta beren indarkeriarik gabeko ibilbidea, baita beren balantzea ere, oposizioko aktorearekin alderatuta. Izan ere, indarkeriarik gabeko mugimendu bat babesteaz ari bagara ere, babes hori modu horizontalean egin behar da, mugimenduaren premiak mugimenduarekin berarekin aztertuz eta lankidetzak jarduerak garatzeko aukera egokienak kontuan izanez. Horrela, beraz, lehen identifikatutako ondorio negatiboak eta nahi ez ditugun bestelako ondorioak saihestu ahal izango ditugu.

Zentzu horretan, garrantzitsua deritzogu, aldi berean, harreman horizontal horiek inolako bitartekaririk gabe mantentzea, hau da, zuzenean garatzea mugimenduarekin berarekin bere egoeraren, helburuen eta premien inguruko kontsulta zuzena egin ahal izateko. Halaber, izan daitezkeen barne desberdintasunen edo iritzi desberdinen ikuspegi zabala izate aldera, garrantzitsua da mugimenduaren ordezkari desberdinekin kontsultak egitea; batez ere, horren oinarri eta leku geografiko desberdinak ordezkatzeko dituzten horiekin.

4.2. Indarkeriarik gabeko mugimenduak sendotzeko ekimenak laguntzea

Lehen ere aipatu dugun bezala, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduei zuzendutako lankidetzak mota nagusia, bada, hasierako faseetan horiek sendotzeko laguntza da, tailerrak, materialen edo ezagutzen (adibidez, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil metodoei buruzkoak) transmisioaren bitartez edo aktibisten arteko truke eta topaketen antolakuntzaren bitartez. Hala, ekimen horiek ematen direnean ere, puntualak izan ohi dira eta ez dira normalean denboran luzatzen, eta ez dituzte, beti, indarkeriarik gabeko ekimenak sendotzen. Hala ere, mugimenduen sendotze hori funtsezkoa dela deritzogu;

izan ere, horien funtsezko fase bat da, baita gatazkaren indarkeriarik gabeko garapenarena berarena ere.

Hemen, bada, garrantzitsua da hiru fase eta dimentsio hauetan babesa eskaintzea: mugimendua sortzeko hasierako fase batean, mugimenduaren nazio mailako eta nazioarteko agerikotasuna eta sinesgarritasuna sustatzeko jardueren bidez; bigarren fase batean, mugimendua garatzeko eta indarkeria-eza ardatz nagusi bezala mantentzeko laguntza tekniko zein ekonomikoaren bitartez gaitasunak garatzen lagunduz; eta, azkenik, mugimenduaren loturak garatzen lagunduz, mugimenduaren barruan zein kanpoan, nazio mailan zein nazioartean.

Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduetako aktibistei eta/edo ekimenei bide-laguntza ematea eta indarkeria egoeretan babesa emateko baliabide edo mekanismoak garatea (eremu seguruak, aterpea, ordezkartza, aholkularitza eta defentsa juridikoa eskaintzea eta abar) funtsezkoak dira mugimendu osoan zehar baina, batez ere, gatazka intentsifikatzen denean eta indarkeria mugimenduaren kontra erabiltzen denean.

4.3. Babes mekanismoak

Aipatutako esku-hartze, elkartasun eta lankidetzeta dinamikek, bada, gatazka testuinguruetan indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduetako aktibistak babesteko mekanismoak kontuan hartzen dituzte. Babes mekanismo horiek mugimenduarentzat duten garrantzia azpimarratu nahi dugu, batez ere, herritar ekimenen aurkako indarkeria mailak gora egiten duenean. Muturreko indarkeria momentu horiek puntualak izan daitezke edo denboran luzatu, gatazka eta mugimendu bakoitzaren kasuistikaren arabera. Horietan, babes baliabideen falta eta, ondorioz, aktibistek pairatzen duten arriskua ere nabarmenak izan daitezke, baita indarkeriaren leherketa osteko mugimenduaren garapen prozesua bera eta bere (ber)antolaketa edo (bir)konfigurazioa ere.

4.4. Epe luzeko laguntza

Lehen aipatu badugu nazioarteko edo mugaz gaindiko lankidetzeta eta/edo elkartasun ekimen gehienak indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduen lehen faseetan egiten direla, gatazkaren eta mugimenduaren beraren ondoko faseak ere kontuan hartu behar dira; behintzat, indarkeriarik gabeko prozesua baliabiderik edo laguntzarik gabe geratzea eta, ondorioz, agortzea nahi ez badugu. Zentzu horretan, bada, garapen ikasketa kiritikoek aipatu duten bezala, komeni da laguntza ekimenen eta epe luzeko erresistentzia mugimenduen arteko harremana mantentzea; are gehiago, laguntza ekimenei izan ohi duten izaera puntuala kontuan hartuta. Era berean, laguntza horiek mugimenduen premietan oinarritzea ere komenigarria da.

4.5. Monitorizazio, kontrol eta balorazio tresnak sortzea

Nazioarteko edo mugaz gaindiko esku-hartze kasu asko puntualak dira eta larrialdietan soilik ematen dira. Hala ere, oso garrantzitsua deritzogu helburuen inguruko gutxieneko plangintza bat egitea eta elkartasun eta lankidetzaren ekimenen emaitzak aurreikustea. Nahiz eta kasu askotan hori zaila izan, batez ere, kontua hartzen badugu indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilen ezaugarrietako bat inprobisazioa dela, garrantzitsua da laguntza mekanismo horiek izan ditzaketen ondorioak eta horiek *ad hoc* zuzentzeko gutxieneko neurriak aurreikustea. Era berean, etorkizunean antzeko jarduerak egiteko ikaspenak egitea komeni da. Horretarako, beraz, mugimenduaren beraren edo, behintzat, ordezkartza baten parte hartzea beharrezkoa da (ahalik eta anitzena eta adierazgarriena), prozesuaren beraren eta bere emaitzen balorazio kritikoa egin ahal izateko.

Hortaz, lekuan bertan ondorio edota esperientzia negatiboak ekiditeko helburuz, gardentasuna funtsezkotzat jotzen dugu, gatazkaren alderdi bietan; alde batetik, lankidetzaren eta/edo elkartasun eskaintzaren benetako arrazoiei dagokionean eta, bestetik, lekuko beharrei, ezaugarriei eta egoerari dagokienean.

5. Ondorioak

Azken hamarkadetako nazioarteko politikan eta, batez ere, Bigarren Mundu Gerraren ostean, indarkeriaren erabilerak, gatazkak konpontzeko bide militar eta biolentoek eta, ondorioz, gerrak ugaritzeak interes nabarmena piztu dute. Aldi berean, batez ere XX. mendearen bigarren erdian, gatazkei aurre egiteko indarkeriarik gabeko metodoak hedatu egin dira baina ez dute horrenbesteko arreta lortu. Hala ere, 2011n Afrikako iparraldean piztutako matxinaden ostean, nolabait, hori aldatu egin da, eta gertakari horiek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren azterketak eta praktikak izan duten arreta handitu dute azken urteotan.

Zentzu horretan, Erresistentzia Ikasketen eremuan indarkeria-ezari lotutako erresistentzia zibilaren kontzeptua ikertu da, Gandhiren hasierako ekarpenetatik eta ondoren horien inguruan emandako garapen teorikoetatik abiatuta. Hala, neurri handi batean, eremu horrek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilari buruzko hurbilketa pragmatikoaren garapena ahalbidetu du. Dena den, azken urteetan erresistentziaren kontzeptua eta praktika ikuspegi kritikoetatik ere aztertu izan dira. Ikuspegi horiek hurbilketa pragmatikoak bake kulturaren garapenaren eta eguneroko erresistentziaren kontzeptuaren inguruan izan ditzakeen hutsune posibleak identifikatu dituzte, hauek ulertuta gerraosteko bakegintza testuinguru eta “bake liberalari” dagokionean tokiko agentziak bezala, edo erresistentzia diskurtsibo zein gorpuztuak bezala, adibidez.

Hala ere, gaur egun, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduen nazioarteko edo mugaz gaindiko harremanen eremua gutxi ikertutako elementu bat da. Ekimen horietako gehienek nazioarteko edo mugaz gaindiko laguntza behar izaten dute, behintzat une-unean. Dena den, batez ere gizarte mugimenduek edo mugimendu transnazionalak eman dute laguntza hori, kasu gehienetan araututako funtzionamendu dinamikarik gabe. Zentzu horretan, beraz, lehenengo lanek nazioarteko lankidetzaren edo elkartasunaren alderdi negatiboak azpimarratzen bazituzten ere, azken hamarkada eta erdian egindako ekarpenek mugimendu horien garapenerako laguntza horien beharra azpimarratzen dute.

Esan bezala, gutxi ikertutako harreman mota bat denez, gida honek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil mugimenduei zuzendutako lankidetzeta modu nagusiak identifikatu nahi izan ditu. Era berean, harreman horren ezaugarrien inguruko gomendioak ere eman nahi izan ditu. Eremu horretako literatura espezializatuaren azterketan oinarrituz, honako alderdi hauek aztertu ditugu: herritar mugimendu edo ekimenen artean berdintasunezko eta errespetuzko harremanak garatzea; indarkeriarik gabeko mugimenduak sendotzeko ekimenak laguntzea; babes mekanismoen eskaintza; epe luzeko lankidetzeta mekanismoen garapena; eta monitorizazio, kontrol eta balorazio tresnak sortzea eta martxan jartzea, nazioarteko elkartasunak edo lankidetzak komunitate mailan sor ditzakeen ondorio negatiboak ekiditeko helburuz.

Bibliografia

- Baaz, Mikael, Mona Lilja, Michael Schulz & Stellan Vinthagen (2016), "Defining and Analyzing 'Resistance': Possible Entrances to the Study of Subversive Practices", *Alternatives: Global, Local, Political*, 41(3), 137-153.
- Baaz, Mikael, Mona Lilja & Stellan Vinthagen (2018), *Researching Resistance and Social Change. A Critical Approach to Theory and Practice*, Rowman and Littlefield, Londres.
- Clark, Howard (2000), *Civil Resistance in Kosovo*, Pluto Press, Londres.
- Clark, Howard (argtz.) (2009a), *People Power: Unarmed Resistance and Global Solidarity*, Pluto Press, Londres.
- Clark, Howard (2009b), "Introduction", in Clark, Howard (argtz.), *People Power, Unarmed Resistance and Global Solidarity*, Pluto Press, Londres, 1-20.
- Chenoweth, Erica & Maria J. Stephan (2011), *Why Civil Resistance Works: The Strategic Logic of Nonviolent Conflict*, Columbia University Press, New York.
- Dalton, Dennis (2012), *Mahatma Gandhi: Nonviolent Power in Action*. Columbia University Press, New York.
- Dudouet, Véronique (2006), *Transitions from Violence to Peace: Revisiting Analysis and Intervention in Conflict Transformation*, Berghof Report 15, Berghof Research Center for Constructive Conflict Management, Berlin.
- Dudouet, Véronique (2008), *Nonviolent Resistance and Conflict Transformation in Power Assymetries*, Berghof Research Centre for Constructive Conflict Management, Berlin.
- Dudouet, Véronique (argtz.) (2015a), *Civil Resistance and Conflict Transformation: Transitions from Armed to Nonviolent Struggle*, Routledge, Londres.
- Dudouet, Véronique (2015b), "Sources, Functions and Dilemmas of External Assistance to Civil Resistance Movements", in Schock, Kurt (argtz.), *Civil Resistance: Comparative Perspectives on Nonviolent Struggle*, University of Minnesota Press, Minneapolis, 168-199.
- Dudouet, Véronique (2017), *Powering to Peace: Integrated Civil Resistance and Peacebuilding Strategies*, ICNC Special Report Series, 1, ICNC Washington D.C.
- Dudouet, Véronique & Howard Clark (2009), *Nonviolent Civic Action in Support of Human Rights and Democracy*, Directorate-General for External Policies of the Union, Europar Parlamentua, Brusela.
- Eguren, Luis Enrique (2009), "Developing Strategy for Accompaniment", in Clark, Howard (argtz.), *People Power: Unarmed Resistance and Global Solidarity*, Pluto Press, Londres, 98-107.
- Gregg, Richard B. (1966), *The Power of Nonviolence*, Schocken Books, New York.
- King, Mary E. (1999), *Mahatma Gandhi and Martin Luther King Jr.: The Power of Nonviolent Action*, UNESCO, Paris.

- Lakey, George (2009), "Nonviolence Training and Charges of Western Imperialism: A Guide for Worried Activists", in Clark, Howard (argtz.) *People Power: Unarmed Resistance and Global Solidarity*, Pluto Press, Londres, 206-213.
- Lopez, Mario (2009), *Política sin Violencia: La Noviolencia como Humanización de La Política*, Corporación Universitaria Minuto de Dios, Bogotá.
- Lopez, Mario (2012a), *Ni Paz, Ni Guerra, Sino Todo Lo Contrario. Ensayos sobre Defensa y Resistencia Civil*, Educatori, Granada.
- Lopez, Mario (2012b), "Gandhi, Política y Satyagraha", *Ra-Ximhai*, 8 (2), 39-70.
- Marovic, Ivan (2018), *The Path of Most Resistance, A Step by Step Guide to Planning Nonviolent Campaigns*, International Center on Nonviolent Conflict, Washington, D.C.
- Martin, Brian (2009a), "Dilemmas in Promoting Nonviolence", *Gandhi Marg*, 31 (3), 429-453.
- Martin, Brian (2009b), "Making Accompaniment Effective", in Clark, Howard (argtz.), *People Power: Unarmed Resistance and Global Solidarity*, Pluto Press, Londres, 93-97.
- Mujika Chao, Itziar (2017), "Civil Resistance Processes in the International Security Map. Characteristics, Debate and Critique", *Hegoa Lan koadernoak*, 72, Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua, Bilbo.
- Ortega, Pere & Alejandro Pozo (2005), *Noviolencia y Transformación Social*, Icaria, Bartzelona.
- Oppenheimer, Martin & George Lakey (1965), *A Manual for Direct Action: Strategy and Tactics for Civil Rights and All Other Nonviolent Protest Movements*, Quadrangle Books, Chicago.
- Richmond, Oliver (2010), "Resistance and the Post-Liberal Peace", *Millenium Journal of International Studies* 38 (3), 665-692.
- Schock, Kurt (2005), *Unarmed Insurrections: People Power Movements in Nondemocracies*, University of Minnesota Press, Minneapolis eta Londres.
- Schock, Kurt (argtz.) (2015a), *Civil Resistance: Comparative Perspectives on Nonviolent Struggle*, University of Minnesota Press, Minneapolis eta Londres.
- Schock, Kurt (2015b), *Civil Resistance Today*, Polity Press, Cambridge eta Malden.
- Scott, James C. (1989), "Everyday Forms of Resistance", *Copenhagen Papers*, 4, 33-62.
- Scott, James C. (2000), *Los Dominados y El Arte de La Resistencia*, Ediciones Era, México D.F.
- Sharp, Gene (1973), *The Politics of Nonviolent Action*, 1, 2 eta 3. bol., Porter Sargent, Boston.
- Sharp, Gene (2005), *Waging Nonviolent Struggle: 20th Century Practice and 21st Century Potential*, Porter Sargent, Boston.
- War Resisters' International (2014), *Handbook for Nonviolent Campaigns*. Hemen: <www.nonviolent-conflict.org/wp-content/uploads/2016/02/wri_handbook_2014_inner_AMENDED.compressed1.pdf>. (2018ko urriaren 12an kontsultatua).